



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA BERGARAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, MENDEKOTASUN PRESTAZIO EKONOMIKOAK JASOTZEN DITUZTEN HERRITARREK JASOTAKO ZAINZAREN KALITATEAREN ALDIKO JARRAIPENA EGITEKO.

Donostian, 2019ko urriaren 29an.

BILDU DIRA

Alde batetik,

MAITE PEÑA LÓPEZ anderea, Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatu gisa eta erakunde horren ordezkari. Berariazko baimena du egintza honetan parte hartzeko, hain zuzen ere Diputatuen Kontseiluak 2019ko otsailaren 12an hartutako erabakiaren bidez.

Eta bestetik:

GORKA ARTOLA ALBERDI jauna, Bergarako Udaleko alkate gisa eta erakunde horren ordezkari. Berariazko baimena du egintza honetan parte hartzeko, Udal Osoko Bilkurak 2019ko urriaren 28(e)an hartutako erabakiaren bidez.

ADIERAZTEN DUTE

I.- 24/2017 Foru Dekretuak, abenduaren 12koak, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta zainketa sustatzekoak, ezarritako prestazio ekonomikoak arautzen dituela 2018ko urtarrilaren 1az geroztik Gipuzkoan. Prestazio ekonomiko horiek jasotzen dituzten titularrek jasotako zaintzaren kalitatearen aldian behineko jarraipena arautzen da Foru Dekretu horretako 27. artikuluan, eta bertan xedatzen da Foru Aldundiak udalen bitartez egingo duela jarraipen hori, betiere udalen ordezkariarekin nahikoa izango den finantzaketa aurretik adostuta.

II.- Foru araudi hori dagoela 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa eta ondorioz sortutako Estatuko legeriari lotua, zehazki, 1051/2013 Errege Dekretuaren, abenduaren 27koa, 12. artikuluari, hain zuzen. Artikulu horretako 6. atalean xedatzen da:

"Autonomia erkidego edo Administrazio eskudunak egiaztatuko du prestazioa lortzeko baldintzak eta eskatutako betebeharrak betetzen direla, baldintza horien aldaketarik sor ez dadin, eta une oro kontrolatuko du familia inguruneko zaintzen jarraipena, horren bidez, zaintza horien egokitasuna eta kalitatea egiaztatzeko. Prestazio hori eten edo iraungitzeko eskumena izango du, hala badagokio".

III.- 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, mendekotasuneko prestazio ekonomikoen inguruko eskumena foru aldundiei badagokie ere, Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Mahaiaren barne Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek lankidetzaz esparru bat adostu dutela zaintzen kalitatearen jarraipena egiteko.

IV.- Gipuzkoako Foru Aldundiak ez duela beharrezko giza baliabide eta baliabide materialik jarraipen hori egiteko; eta edonola ere, prestazio horien hartzailerik diren pertsonen gertuko, etengabeko eta osoko arreta eman ahal izateko, eta kudeaketa publikoa eraginkorragoa egiteko, gomendagarria dela udal gizarte zerbitzuekin lankidetzaz ezartzea lan hori egin ahal izateko.

V.- Ondorioz, bi aldeek beharrezkoa jotzen dutela emakida hitzarmen bat sinatzea, hain zuzen ere aldean arteko betebeharrak arautzeko.

Hori guztia klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Xedea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Bergarako Udalaren arteko hitzarmen honen xedea da mendekotasuneko prestazio ekonomikoen hartzailerik diren titularrek jasotako zaintzaren kalitatearen jarraipena egiteko baldintzak zehaztea, 24/2017 Foru Dekretuak, abenduaren 12koak, 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

BIGARRENA.- Kudeaketa mandatua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, hitzarmen honen bidez, Bergarako Udalaren esku uzten ditu udalerrian erroldatutako mendekotasuneko prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten titularrek jasotako zaintzaren kalitatearen jarraipena egiteko lanak, eta Udal horrek bere gain hartzen ditu zeregin horiek.

HIRUGARRENA.- Jarraipenaren edukia.

1.- Udalaren esku utzitako mandatua, hau da, jarraipena, Familia Ingurunean zaintzeagatiko Diru Laguntza jasotzen duten pertsonen inguruan egin behar da batez ere, eta salbuespen gisa, Laguntza Pertsonaleko Prestazio Ekonomikoa duten pertsonen inguruan. Hala ere, lehentasuna izango du zerbitzu formalen erabiltzaile ez diren pertsonen jasotako zaintzaren kalitatearen jarraipenak.



2.- Jarraipenaren helburua da pertsona horiek arreta baldintza egokiak jasotzen dituztela eta etxebizitzako bizikidetzeta eta bizigarritasun baldintzak egokiak direla egiaztatzea, zaintzen kalitatea bermatzea eta arreta gabezia egoera posibleei aurrea hartzea.

3.- Jarraipen hori egiteak esan nahi du prestazioa jasotzen duen pertsonaren etxebizitzara bisitaldia egin beharko dela, bi urtez behin gutxienez.

Mendekotasuneko prestazio ekonomikoa jasotzen duen pertsona gizarte zerbitzu formalen erabiltzaile ere bada, modu berezian bestelako jarraipen modalitateak erabili ahal izango dira etxeko bisitaldiaren ordeztu, ala nola gizarte zerbitzuen bulegoetan egindako elkarrizketa pertsonala edo telefono bidezko elkarrizketa.

4.- Bisitaldi horietan, informazioa, orientabidea eta aholkularitza emango zaie, bai mendekotasun egoeran dagoen pertsonari, bai zaintzaileari.

5.- Onuradunaren espedientearen erregistratu beharko da jarraipen jarduketaren bakoitza, bertan lortutako oinarriko informazioarekin batera (ikus Hitzarmen honetako II. Eranskina). Halaber, jarraipen jarduketaren ondorioz, egoeraren egokitasun mailaren balioespina egin beharko da: handia, ertaina edo apala izango dena.

LAUGARRENA.- Udalaren betebeharrak.

Udalaren betebeharrak izango dira:

1.- Jarraipena hirugarren klausulan xedatutako baldintzetan egiteko giza baliabideak eta baliabide materialak erabiltzea.

2.- Jarraipen jarduketaren ondorioz lortzen den informazioa Gizarte Politikako Departamentuaren Extranetean jasotzea, dagokion atalean, hain zuzen.

3.- Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea hitzarmen honen betetzea modu nabarmenean erasan dezakeen edozein baldintza.

BOSGARRENA.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren betebeharrak.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren betebeharrak izango dira:

1.- 2019an, hitzarmenaren indarraldiko lehenengo urtean, I. Eranskinean xedatutako zenbatekoak ordaintzea Bergarako Udalari, egindako jarraipen jarduketaren bakoitzeko.

Hitzarmenaren indarraldiaren lehenengo urtea igaro ostean, jarraipen jarduketaren bakoitzean egin beharreko zereginen batez besteko bolumena ebaluatuko da, eta I. Eranskinean xedatutako zenbatekoa zeregin horiek hartzen duten denborari estaldura emateko nahikoa den egiaztatuko da. 2020. urtetik aurrera, eta hitzarmenaren indarraldian zehar, ebaluazio horren emaitzen arabera, zenbateko hori doitzen joango da, eta ala behar balitz aipatutako eranskina aldatuko da.



- 2.- Udalerrian mendekotasuneko prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsoneri buruzko informazio eguneratua ematea udalari, hain zuzen ere jarraipena egin beharreko pertsoneri buruzkoa.
- 3.- Gizarte Politikako Departamentuko Extranetean beharrezko egokitzapenak egitea, jarraipen jarduketan emaitzak erregistratzeko.
- 4.- Hitzarmen honen xederako berariazko laguntza teknikoa eskaintzea.

SEIGARRENA.- Foru finantzaketaren ordainketa.

- 1.- Sei hilabetez behin, zehazki, uztailaren 31 baino lehen eta dagokion urtearen aurrekontuaren itxiera baino lehen, I. Eranskinean 2019rako zenbatekoak ordainduko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hurrengo urteetan, bosgarren klausulan xedatutako prozesua dela eta zehazten diren zenbatekoak ordainduko ditu, aurreko seihilekoan Extraneten erregistratutako jarraipen jarduketa kopuruaren arabera.
- 2.- Seihileko natural bakoitzaren bukaeran egingo diren ordainketak egiteko orduan, urte bakoitzeko ekaina eta abendu amaierako egoerak hartuko dira erreferentzia gisa.

ZAZPIGARRENA.- Jarraipen batzordea eta auzien ebazpena.

Hitzartutako baldintzen jarraipena aztertzeko, eta bereziki, I. ataleko bosgarren klausulan xedatutako ebaluazioa egin ahal izateko, bi alde sinatzaileek adosten dute batzorde bat osatu ahal izango dutela, eta bi aldeek ordezkariak parekidea izango dutela bertan.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmena suntsiarazteko eta iraungitzeko arrazoiak.

Hitzarmen hau suntsiarazi edo iraungitzeko arrazoiak hauek izango dira:

- 1.- Alderdi sinatzaileek hala adosten badute.
- 2.- Aldeetako batek hitzarmenari uko egiten badiu, indargabetzearen data aurreikusia baino gutxienez bi hilabete lehenago jakinarazi beharko dio beste aldeari.
- 3.- Aldeek hitzarmen honetan xedatutako betebeharrak eta baldintzak ez betetzea.

BEDERATZIGARRENA.- Araubide juridikoa.

- 1.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak zuzenduko ditu haren interpretazioa eta garapena.
- 2.- Hitzarmena interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen auziak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ezagutza eta eskumenekoak izango dira.



HAMARGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia eta eguneratzea.

1.- Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak. 2019ko abenduaren 31 bitarteko indarraldia izango du.

2.- Hitzarmen hau urte natural bakoitzaren amaieran isilbidez luzatuta dagoela joko da, baldin eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrekontu esleipen egokia badu hurrengo ekitaldirako. Hitzarmenaren eta horren luzapenen iraupena 8 urtekoa izango da gehienez.

3.- Hitzarmen honetan xedatutako zenbatekoak urtero eguneratuko dira, hitzarmen honetako bosgarren klausulan xedatutako ebaluazioaren arabera, zenbateko horiek aldatu beharra erakutsi ezker. Edozein kasutan, aldaketa horrek muga bat izango du, eta hori sektore publikoaren zerbitzura dagoen pertsonalaren ordainsariak jasandako igoera izango da, espainiar ekonomiaren desindexazio Legea garatzen duen 55/2017 Erret Dekretuaren 5. artikulua ezartzen duenez.

HAMAIKAGARRENA.- Izaera pertsonaleko datuak.

Hitzarmen honen esparruan garatzen diren datu eta jardueren tratamendua izaera pertsonaleko datuen babesaren arloan indarrean dagoen legeak ezarritakoari jarraituz arautuko da. Horretarako, ardura duten entitateek tratamenduaren arduradun izaera izango dute.

Bergarako Udalaren aldetik

Gorka Artola Alberdi

Alkatea

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik

Maite Peña López

Gizarte Politikako Foru Diputatua





II. ERANSKINA

Jarraipeneko bisitan jaso beharreko datuak, egoera erregistratzeko hurrengo bisitetarako:

Prestazioaren titularra: 1. ABIZENA, 2. ABIZENA, IZENA

MBB maila: X

Helbidea: Kalea X, Udallerria.

Prestazio mota: FIZPE

Zaintzailea / Laguntzaile pertsonala 1. ABIZENA, 2. ABIZENA, IZENA

Ahaidetasuna: Ezkontidea, seme-alaba, ama, bat ere ez,...

Eguneko zentroa / Lantegi okupazionala: BAI/EZ

Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ): BAI/EZ

Bisita eguna: 20UU/HH/EE

Profesionala:

1.- Etxebizitza:

1.1.- Ba al dago oztopo arkitektonikorik etxera sartzeko? BAI/EZ, zeintzuk:

1.2.- Ba al dago bestelako oztoporik etxe barruan? BAI/EZ, zeintzuk:

1.3.- Ba al du laguntza teknikorik? BAI/EZ, zeintzuk:

Adierazi antzeman daitezkeen beste gauza garrantzitsu batzuk:

2.- Zaintzaile nagusia:

2.1.- Zaintzaile lanetan daraman denbora, zenbat urte/hilabete?

2.2.- Zaintzailea bakarrik arduratzen al da zaintza lanaz? BAI/EZ, beste batzuekin partekatuta al dago? Zaintzaileak ba al du familiaren laguntza? Ba al du kanpoko laguntzarik?

2.3.- Nola sentitzen da zaintzailea? Adibidez, nekatuta, beste familia kide batzuei (seme-alabak, ezkontidea,...) arreta eskaintzeko denborarik gabe, aisiarako denborarik gabe; osasun fisikoari, nekeari eta emozioei dagokienez; edota, aldiz, pozik sentitzen da egiten duen lanagatik,...

2.4.- Beharrezkoa ikusten al du orientabide, aholku edo prestakuntzaren bat, zaintza lanetan lagundu diezaioketen zerbitzuren bat (EEI.Z, eguneko zentroa, aldi baterako egonaldiak, laguntza teknikoak, LPPE,...)?

2.5.- Ezagutzen al ditu lagundu diezaioketen zerbitzuak/prestazioak?

Adierazi zaintzaileak esan litzakeen beste gauza garrantzitsu batzuk:

3.- Mendekotasuna duen pertsona:

3.1.- Ba al du narriadura kognitiborik?

3.2.- Itxura egokia al dauka? Itxura desegokia al dauka (elikadura txarra, arropa zikina, deshidratazioa, errepikapen-erorikoak, jarrera beldurtia, elkarrizketa pribatuak eragozten dira, egunean denbora asko pasatzen du bakarrik...)?

3.3.- Ba al du harremanik beste pertsona batzuekin? Ateratzen al da etxetik? maiztasuna. Izaten al ditu bisitak? maiztasuna.

3.4.- Joaten al da eguneko zentrorra / lantegi okupazionalera / eskolara? Joan nahi al luke?

3.5.- Hitz egiteko gai bada, nola sentitzen dela esaten du?

Adierazi beste gauza garrantzitsu batzuk mendekotasuna duen pertsonari buruz:



I ERANSKINA

FORU FINANTZIAZIOAREN ZENBATEKOA EGINDAKO ETA ONDO ERREGISTRATUTAKO JARRAIPEN EKINTZA BAKOITZEKO

2019	PRORROGA IZAN EZKERO
75,09€	2019ko zenbatekoa + gehienez sektore publikoaren zerbitzura dagoen pertsonalaren ordainsariak jasandako igoera





Profesionalaren ondorioak, honako hau adieraziko da:

- 1.- Egokitzapen altua: 3 multzo nagusietako egoera ona dela ikusten denean.
- 2.- Egokitzapen ertaina: egoera egokia dela irizten denean, baina hobetu daitekeen zerbait ikusten denean (etxebizitzaren, zaintzailearen edota mendekotasuna duen pertsonaren egoerari dagokionez). Emandako gomendioak eta orientabideak adieraziko dira:
- 3.- Egokitzapen baxua: etxeko zaintzarekin edota oraingo zaintzaileak eskaintzen duenarekin jarraitzerik ez dagoela ikusten denean. Arrazoiak:
 - 3.1.- Mendekotasunaren bilakaera
 - 3.2.- Zaintzailearen gaitasuna
 - 3.3.- Etxebizitzaren egoera

Emandako orientabidea adieraziko da: Laguntza teknikoak eskatzea, zaintzaileari laguntza eskaintzea (laguntza taldeak, banakako saioak psikologoarekin,...), zaintzailea aldatzea, laguntzaile pertsonal bat kontratatzea eta LPPE prestazioa eskatzea, beste zerbitzu batzuekin bateragarri egitea (etxeko laguntza zerbitzua, eguneko zentroa, aldi baterako egonaldiak,...), egoitza batean sartzea.



